

ARTE EDERREN FAKULTATEKO ERAKUSKETA ARETORAKO PROPOSAMENAK BIDALTZEKO DEIALDIA

NORI ZUZENDUTA?

Hurrenkera hau kontuan hartuta:

- Irakasleei, irakaskuntzako materiala edota taldean egindako lanak erakusteko.
- Ikasleei, irakaskuntzarekin lotutako gaiak lehenetsita.
- Salbuespen gisa, kanpoko agenteekin edo agenteen arteko irakaskuntza edo ikerketa trukearen ondoriozko jarduerak edo emaitzak sar daitezke–baldin eta indarreko lankidetzak hitzarmenak baditugu–.
- Salbuespen gisa, batzordeak erakusketa indibidualak eskatzeko aukera baloratu ahal izango du, proposamenaren interesaren arabera, betiere ikasturterako programatutako erakusketen 1/4 gainditzen ez badute.

NOLA AURKEZTU PROPOSAMEN BAT ARETORAKO?

Urtean bi deialdi izango dira proposamenak aurkezteko:

Udaberrian, apirilaren 30 arte.

Udazkenean, irailaren 30 arte.

Aretoa eskatzeko, informazio hau biltzen duen dokumentua bidali behar da helbide honetara:
ecultural.bellasartes@ehu.eus:

- Erakusketa arduradunaren eta parte hartzaileen izen-abizenak.
- Proiektuari buruzko informazio garrantzitsua; izenburua, erakusketaren ezaugarriak, piezen irudiak...
- Proposamena ulertzen laguntzen duen beste edozein informazio.

NOIZ BILTZEN DA ERAKUSKETA ARETOKO BATZORDEA?

Hona batzordekideak:

- Fakultateko dekanoa: Arantza Lauzirika (edo horrek eskuordetutako pertsona)
- Unibertsitate hedakuntzako dekanordea: Edurne Gonzalez Ibañez
- Eskultura eta Arte eta Teknologia Sailaren Eskultura Ataleko ordezkaria: Elena Mendizabal
- Eskultura eta Arte eta Teknologia Sailaren Artea eta Teknologia Ataleko ordezkaria:: Zuhar Iruretagoiena.
- Artearen Historia eta Musika Saileko ordezkaria: Mikel Bilbao
- Margolaritza Saileko ordezkaria: Julen Araluce
- Representante Departamento de Dibujo: David Arteagoitia

Ikasleen ordezkariak:

- Paula Fuentes
- Gaëlle Rocher
- Lara Kaminisky
- Hegoa Mas Gorrotxategi

Urtean bi aldiz bilduko da. Maiatzean proposamenei buruzko informazioa hautatu eta argitaratuko du hurrengo ikasturteko lehen lauhilekorako.

Eta ikasturtearen hasieran bigarren lauhilekorako erakusketak aukeratuko ditu.

Zalantzarik izanez gero: arantza.lauzirika@ehu.eus / ecultural.bellasartes@ehu.eus

